

DEKRETUA

Dirulaguntza izendunak ematea

ESKABIDEAREN DATUAK**Interesduna:** V48886725 – Topagunea euskara elkarten federazioa**Programa:** 2020ko euskaraldia Galdakaon**Ekitaldia:** 2020**Erregistro zk.:** 2020-E-RE-1611(2020/03/26)**Espediente zk.:** 1421/2020**ARAUDI OROKORRA**

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) eta 28. artikulua eta Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDko 65. artikulua.

ARAUDIADirulaguntzen Emakida arautzen duen Udal Ordenantza Orokorra¹ eta aldatua².Dirulaguntzen Plan Estrategikoa: Udalak 2020-2023 epealdirako onetsia³.

Transferentzia Arrunten Eranskina: 2020ko ekitaldirako Aurrekontuko Transferentzia Arrunten eranskinean, 07.3351.481.06 aurrekontu-partidan, *Topagunea Euskara elkarten Federazioari* 40.000,00 euroko dirulaguntza izenduna ematea aurreikusita dago.

AURRETIAZKO TXOSTENAK

Hezkuntza eta Euskara teknikariaren aldeko txostena: 2020/05/05

Kontuhartzaile Orokorraren aurretiazko fiskalizazio txostena: 2020/07/03

ERABAKITZEN DUT:

Lehenengoa.- Ondoren aipatzen den entitateari / elkarteari dirulaguntza ematea, hain zuzen ere, adierazten den zenbatekoan, eta zehazten den programarako.

ENTITATEA / ELKARTEA	IFK	PROGRAMA	ZENBATEKOA
Topagunea euskara elkarten federazioa	V48886725	2020ko Euskaraldia Galdakaon	35.313,40€

Bigarrena.- Aipatutako entitateari / elkarteari onetsitako kopurua ordaintzea, alde aurretik dirulaguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat sinatuta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesadunei jakinarazi eta Udaleko zerbitzu ekonomikoei helaraziko zaie.

SINADURA ELEKTRONIKOA¹ BAO 172 (2005/09/09)² BAO 23 (2008/02/01)³ BAO 39 (2020/02/26)